

Xedea

Dokumentu honetan inbertsio produktu honi buruz ezagutu beharko zenukeen oinarrizko informazioa aurkituko duzu. Ez da material komertziala. Legeak ezartzen duen informazioa da, produktu honen izaera, arriskuak, kostuak eta irabazia zein galera potentzialak ulertzen laguntzeko eta beste produktu batzuekin partekatzen laguntzeko.

Produktua

| | |
|-------------------------|---|
| Izena: | IBEX 35® 04-2025 Produktu Egituratua |
| Identifikadorea: | NOE 30089 |
| Fabrikatzailea: | Banco de Sabadell, S.A. IFZ A08000143 |
| Harremanetarako datuak: | https://www.bancsabadell.com/cs/Satellite/SabAtl/Documentacion-PRIIPS/2000025609204/es/ |
| Telefonoa: | 963 085 000; Espainia kanpotik deitzen baduzu: +34 935 916 360 |
| Agintari eskuduna: | Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala |
| ODD ekoizpen data: | 2022ko maiatzaren 3 |

Erostera zoazen produktua ez da erraza. Zaila izan daiteke ulertzea.

Zer da produktu hau?

Mota

Finantza Kontratua

Xedea

Produktuaren xedea azpiko baten edo batzuen jokoerari lotutako finantza-tresna batean inbertitzea da, kapitala galtzeko arriskua hartuz errentagarritasuna lortzeko. Jarraian aipatzen diren zenbatekoak zuk inbertitutako Zenbateko Nominal bakoitzari dagozkio. Kalkulu-agentek zehaztuko ditu zenbatekoak.

Azpikoak

Errendimendua IBEX 35® Index-era (Bloomberg-IBEX Index) erreferentziatuta dago.

Nola zehazten da etekina?

- Behaketa-data bakoitzean, azpikoaren itxiera-prezioa Hasierako Mailaren berdina edo handiagoa bada, Zenbateko Nominalaren gaineko % 1,1eko kupoia jasoko duzu dagokion likidazio-datan. Aurreko aldietan kupoirik jaso ez bada, % 1,1eko beste kupoi bat jasoko duzu kupoia kobratu ez duzun aurreko aldi bakoitzarengatik. Bestela, ez duzu kupoirik jasoko.
- Iraungitakoan, hurrengoak gerta daitezke:
 - Azpikoaren Bukarako Maila bere Hasierako Mailaren % 85 edo handiagoa bada, bezeroak Nominala berreskuratuko du.
 - Bestela, bezeroak Nominal gutxiagotua berreskuratuko du Azpikoaren Hasierako Mailako % 85etik izandako beherakadagatik, gehienez % 10eko galerarekin.
- Produktu honek bermatuta du inbertsioaren Nominalaren % 90a.

Oinarrizko datak eta datuak

- Kalkulu-agentea: Banco de Sabadell, S.A.
- Gutxieneko Zenbateko Nominala: 20.000 euro
- Jaulkipen-data: 2022ko apirilak 13
- Iraungitze-data: 2025eko apirilak 14
- Hasierako maila: Azpikoaren itxiera-prezioa Hasierako Behaketa Datari
- Bukaerako maila: Azpikoaren itxiera-prezioen batezbesteko aritmetikoa Bukarako Behaketa-datarik
- Behaketa Data:
 - Hasierako Behaketa Data: 2022ko apirilak 11
 - Kupoiaren Behaketa Data: 5 lanegun Likidazio-data bakoitzaren eta Azken Behaketa Dataren aurretik
 - Bukaerako Behaketa Data: 2025eko apirilaren 3a, 2025eko apirilaren 4a eta 2026eko apirilaren 7a
- Likidazio-datak: apirilak 13 guztiak, Iraungitze-datara arte. Asteburua edo jaieguna izango balitz, Modified Following arauari jarraituko zaio.

Zein txikizkako inbertitzaile dago zuzenduta?

Funtsean hauei zuzendutako produktua: Produktuan edo antzeko produktuetan alde aurreko ezagutza- edo esperientzia-maila aurreratua duen edozein bezerori, galeren % 10 bere gain hartzeko gaitasuna badu, eta <<arrisku ertaina-txikia>> arrisku-profila badu. Era berean, xede-bezeroen inbertsio-helburuak produktuaren epemugarekin koherentea den inbertsio-epeari lotuta egongo dira, eragiketaren helburua errentak lortzea eta kapitala haztea izango da, eta zerbitzua honelakoa izango da: egikaritze hutseko zerbitzua (txikizkako bezeroak izan ezik), komenentzia-testa duen egikaritze hutseko zerbitzua, aholkularitza independentekoa, aholkularitza ez-independentekoa eta zorroen kudeaketa diskrezionaleko zerbitzua.

Zein arrisku ditut eta zer lor dezaket horren truk?

Arriskuaren adierazlea

Arriskurik txikiena

1

2

3

4

5

6

7

Arriskurik handiena



Arriskuen adierazleak produktua 2025eko apirilaren 14ra arte edukiko duzula ulertzen du. Ezingo duzu kontratua lehenago baliogabetu, Erakundearekin adostu ezean kontratuan ezarritako baldintzetan.

Arriskuaren adierazle laburtua beste produktuekiko produktu honen arrisku maila alderatzen duen gida da. Produktuak merkatuen eboluzioaren ondorioz edo guk ordaindu ezin dugulako dirua galtzeko aukerak bistaratzen ditu. Produktua 3 arriskumotaren arabera sailkatu dugu 7ra arteko eskalan, non 3 <<arrisku ertaina-txikia>> den. Horretarako, bi elementu hartzen dira kontuan: 1) merkatuaren arriskua (azpikoaren hegazkortasun arriskua eta interes tasaren arriskua); etorkizuneko jokabidearen ondorioz gerta daitezkeen galerak arrisku txikiko gisa sailkatzea; eta 2) kreditu-arriskua eta merkatuaren egoera txarrak Bankuak zuri ordaintzeko duen ahalmenean eragina izateko probabilitatea txikia izatea. Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzueta enpresak berregituratzeko eta suntsiarazteko Europako 2014/59/EB Zuzentaraua aplikatuz, ebazpen-agintariak birkapitalizatu beharreko finantza-tresnak beste balore batzuetan amortizatzea eta/edo bihurtzea edo jaulkitzailearen aktiboak eta/edo negozio-unitateak transmititzea erabakitze arriskua. Kapitalaren % 90a edo gehiago berreskuratzeko eskubidea du. Zenbateko horren gainetik dagoen kantitate oro, eta etekin osagarri oro, merkatuaren etorkizuneko eboluzioaren mende daude, eta ez dira ziurrak. Ezingo bagenizu zor dizuguna ordaindu, inbertsio osoa gal zenezake.

Errentagarritasun-egoerak

Ezin da zehazki aurreikusi etorkizunean merkatuak zein eboluzio izango duen. Barne hartzen diren egoerak, azken etekinak oinarritzat hartuz izan daitezkeen emaitza posibleetako batzuen adierazpen soila dira. Benetako etekinak txikiagoak izan daitezke.

Inbertsioa (10.000 euro)

| Egoerak | | 1 urte | 2 urte | 3 urte Gomendatutako mantentze-aldia |
|----------------|---|------------|-------------|--------------------------------------|
| Tentsio-egoera | Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena | 8.581 euro | 8.770 euro | 9.000 euro |
| | Urteko batez besteko etekina | -% 14,19 | -% 6,35 | -% 3,45 |
| Egoera txarra | Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena | 8.913 euro | 8.840 euro | 9.000 euro |
| | Urteko batez besteko etekina | -% 10,87 | -% 5,97 | -% 3,45 |
| Tarteko egoera | Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena | 9.373 euro | 9.528 euro | 10.000 euro |
| | Urteko batez besteko etekina | -% 6,27 | -% 2,39 | % 0,00 |
| Aldeko egoera | Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena | 9.772 euro | 10.062 euro | 10.335 euro |
| | Urteko batez besteko etekina | -% 2,28 | % 0,31 | % 1,10 |

Aurreko egoeretan, aurrez definitutako behaketa-datetan lortutako balizko fluxuak (kupoiak eta/edo autobaliogabetzea) arriskurik gabeko tasan berrinbertitu daitezke, gomendatutako inbertsio-aldira arte.

Taula honetan hurrengo 3 urteetan zehar jaso ahal izango zenukeen dirua adierazten da, egoera desberdinen arabera eta 10.000 euro inbertitzen dituzula ulertuta. Aurkeztutako egoerek zure inbertsioek izan dezaketen errentagarritasuna azaltzen dute. Beste produktu batzuen egoerekin alderatu ditzakezu. Aurkeztutako egoerarako etorkizuneko errentagarritasuna kalkulatu da, inbertsio horrek iraganean izan duen aldaketaren datuetan oinarrituta, eta beraz, egoera horiek ez dira adierazle zehatzak. Jasoko duzuna aldatu egingo da merkatuaren bilakaeraren eta inbertsioa edo produktua mantentzen duzun denboraren arabera. Tentsio-egoerak merkatuen muturreko zirkunstantzian jaso dezakezuna adierazten du, eta ez du kontuan izaten guk zuri ordaindu ezin dizugun egoera bat. Produktu hau ezin da efektibo bihurtu. Hau da, zaila da iraungi aurretik saltzen baduzu jasoko zenukeen kantitatea zein den zehaztea. Lehenago ezingo duzu saldu edo garesti ordaindu beharko duzu edo galera handia izango duzu eginez gero.

Aurkeztutako zifrek produktuaren kostu guztiak hartzen dituzte, baita zure aholkulariaren edo banatzailearen kostuak ere. Zifrek ez dute kontuan hartzen zure zerga egoera pertsonala, zeinak eragina izan dezakeen jasoko duzun zenbatekoan.

Zer gertatuko litzateke Banco de Sabadell, S.A.-k ordaindu ezingo balu?

Finantza-kontratu hau ez da bankuko gordailu bat eta, ondorioz, ez du konpentsazio edo berme baten erregimenaren estaldurarik. Hortaz, iraungitakoan Bankuak ezingo balu ordaindu, kaudimenik ez duelako, bezeroa Bankuko gainerako hartzekodun arruntekin bilduko da, eta pribilegioa edo bermea duten hartzekodunen mendean geratuko da; beraz, mendeko hartzekodun eta akziodunen aurretik soilik izango du lehentasuna.

Zein dira kostuak?

Etekinaren murrizketak (RIY) zuk ordaintzen dituzun kostu osoek lor dezakezun inbertsioaren etekinean duen eragina adierazten du. Kostu osoek kostu bakunak, ohikoak eta osagarriak hartzen dituzte kontuan.

Hemen adierazitako zenbatekoak hiru mantentze aldiri dagozkien produktuaren kostu metatuak dira. Barne hartzen dira aurretik irteteagatik gerta daitezkeen penalizazioak. Zifrek zuk 10.000 euro inbertituko dituzula aurreikusten dute. Zifrak aurreikuspenak dira, beraz, etorkizunean alda daitezke.

Kostuak denboran zehar

Inbertsioa (10.000 euro)

| Egoerak | Irteera 1 urteren ondoren | Irteera 2 urteren ondoren | Irteerarekin (gomendatutako mantentze-aldiaren bukaeran) |
|---|---------------------------|---------------------------|--|
| Kostu osoak | 579,30 euro | 579,30 euro | 479,30 euro |
| Urteko etekineko murrizketan duen eragina | % 5,77 | % 2,95 | % 1,65 |

Kostuen osaera

Hurrengo koadroak hauxe adierazten du:

- Kostu mota desberdinek inbertsioaren etekinean izan dezaketen urte bakoitzeko inpaktua gomendatutako mantentze-aldiaren bukaeran;
- Kostuen kategorien esanahia.

Koadro honetan urteko etekinean duen eragina ikus daiteke

| | | | |
|-------------------------|------------------------------|--------|--|
| Kostu bakunak | Sarrera-kostuak | % 1,65 | Inbertsioa egiten duzunean ordaintzen dituzun kostuen inpaktua. Kostuen inpaktua prezioan sartuta dago. Kantitate honetan zure produktuaren banaketa kostuak sartzen dira. |
| | Irteera kostuak | EA | Iraungitze datan bere inbertsioaren irteera kostuen inpaktua. |
| Ohiko kostuak | Zorroaren eragiketen kostuak | EA | Guretzat produktuaren azpiko inbertsioen erosketak eta salmentak izango duten kostuen inpaktua. |
| | Beste ohiko kostu batzuk | EA | Zure inbertsioen kudeaketaren urteko kostuen eta II. atalean bildutako kostuen inpaktua. |
| Kostu osagarriak | Etekin-komisioak | EA | Ez dagokio (EA) |
| | Partaidetzak kontuan | EA | Ez dagokio (EA) |

Zenbat denboraz eduki behar dut inbertsioa, eta dirua lehenago atera dezaket?

Gomendatutako mantentze-aldia: 3 urte

Gomendatutako mantentze-aldia produktuaren iraungitze datari dagokio. Arren, kontuan izan produktua iraungitze-dataren aurretik baliogabetzea ez dagoela aurreikusita, likidezirik ez duelako. Edozein kasutan ere, Entitatea kontratuan aurreikusitako baldintzen lehenagoko baliogabetzean sartuko balitz, baliogabetze hori ezingo litzateke kontratatutako nominalaren % 1 baino gehiago izango.

Nola erreklama dezaket?

Produktu honen edo jasotako zerbitzuaren inguruan kexarik edo erreklamaziorik aurkeztu nahi baduzu, Bezeroen Arreta Zerbitzuarekin jar zaitezke harremanetan, <https://www.bancsabadell.com> guneko harremanetarako formularioaren bitartez edota postaz, hurrengo helbidean: Bezeroen Arreta Zerbitzua - Banco Sabadell Gunea, Can Sant Joan industrialdea. Calle Sena, 12, 08174 Sant Cugat del Vallès edota posta elektronikoz bidez, hurrengo helbidean: SAC@bancsabadell.com, baliabide honen erabilera 59/2003 Legearen arabera denean, abenduaren 19koa, sinadura elektronikokoa. BAZari erreklamatu ondoren, badago BMNBari erreklamatzeko aukera.

Beste datu interesgarri batzuk

ODD honetan egin daitekeen ekintza oro Banco Sabadell web orrian edo BS Online webgunean egongo da eskuragarri, bezeroaren posizioko kontuan.